

AZALPENA:

Donostiaren garapen orekatua lortzeko ezinbestekoa da **auzoak suspertzen jarraitzea** eta ez bakarrik hirigintzako elementuei dagokionez, baizik eta zerbitzuen deszentralizazioa eta elkarbizitzaren suspertzea ere e.a. garrantzitsuak izango dira. Askotan prozesu hori mantsoa da, baina, apurka-apurka aurrera egin behar da. Azken urte hauetan auzoak suspertzeko esfortzu handia egiten ari da baina epe motz, ertainean eta luzean egin beharreko ekintzak azaltzen dituen programa batekin osatu behar da. Izartu edo Urban bezalako programak edo Donostia birgaitzeko kudeaketa erakundeetan metatutako esperientziak hartu beharko lituzke kontuan.

HELBURUAK: A-2 helburuan eta A2.4. estrategian du eragina bereziki: *Hiriaren egituraren hiriko elementu batzuen txertaketa ona eragozten duten azpiegitura eta hiri oztupoak baztertzea eta berrikuntza eta birgaitze politika berriak sustatu behar bezala ustiatu gabeko hiriko elementuen eta elementu naturalen antolamendurako eta zentralitate berrietarako gaitasuna sustatuz. Eta C.1.3 estrategia "Herriko elkarketa kulturala eta auzoan susperraldia indartu eta sendotu gizarte zibilaren txertaketa ahalbidetuko duten partaidetza mekanismo indartsu eta arinak landuz eta deszentralizazio administratiboa erraztuz".*

DESKRIPZIOA:

Auzoak suspertzeko Programa baten aurrean gaude eta bere ekintza planak honako ezaugarri hauek izan beharko lituzke ,beste batzuen artean:

- Hiri-birgaitze proiektuak
- Zerbitzu mapa.
- Epe motz, ertain eta luzeko helburuen ezarpena
- Hiri partaidetzaren antolamendua (iritzia, proiektu garrantzitsuenak, e.a)
- Garraioa